

# ATAUNGO JOXEMIEL BARANDIARANEN

## AZKENEKO MENDI-IRTENALDIA

### 1987ko ekainaren 10a

Dagoeneko, udaberria bere onenak emanda da. Bazkalondoa. Eguraldiak ez du itxura txarrik eta herriko zaharrenarengana abiatu naiz, zertan ote den-edo jakin asmoz; aspaldi honetan etxe aldetik dabilen hotsa baitago. Osasunez ahul samar, dirudienez. *“Erriñ iltzen dien guztik ni baiño gaztegorok dittuk, au dek marka!”*

Iloba Pilar beste zeregin batera doan bitartean, ile-apaindegira hain zuzen, eta *Peunexarra*-ri mendira joateko gogoa piztu zaionez, berehalaxe ekin diogu. Ez da harritzekoa; urte t´erdi baitarama mendiratu gabe. Bi mendizale gara, batak laurogeita hamazazpi eta besteak hogeita hamasei urte; garbi esanda, hirurogeita bat urteren alde, alajainkoa!



*Munduate. San Gregorio (Ataun)*

Prestaketa handiren beharrik ez dugu izan, mendian bizi baikara; beraz, etxetik irtetea aski zaigu izadiarekin bat egiteko. Espartinak jantzi ditu, ezkaratzeko makila eskuan hartu eta “goazemak” ttipi-ttapa abiatu gara erreka aldera. Zubi-zubian geratu eta uretan amuarrainik ba ote den behatu du *“etzeillek amorraiik, atzo ikusi nian bat”*. Errepidean kontuz ibili beharra dago. Autozale batzuek klaxona ere jo digute *“ezaunen bat izingo oan”*. *Munduate*ko bihurgunean kamioizale bati paso eman dio berak eskuaz, eta *Arbotoneta* baino lehen, bide gaineko zelaitik basora sartu gara. Garai batean hau guztia gaztainadi omen zen. Hasieran sagar-arbola batzuk. Lehendabiziko pausoak ditu aspaldi honetan mendiari emanak *“emen iñor gutxi ibiltzen dek ta etzekiat nola ibilliko gean”*. Presarik gabe goaz, bateko eguraldia, besteko halako baserria, hurrena bideko lagar, geroxeago adina, isilaldiren bat edo beste, eta berriro hizketagai berriren bat; oraingoan inguruko soroko artoa. Zalantzakor doa, tarteka bide ertzeko elorri-adarre helduz, garai bateko gurdibide, gaur egungo

bidezidor traketsean; hala ere, "neonek uste baiño obe natxok" esanez aurreraka goaz. *Gaztiñaundi* da gure helburu; etxetik aurrez aurre duen mendi alderdia. Baina bide traketsa izaki eta laharrez eta elorritz josita egonik, azkenean, etsi egin dugu.



*JMBarandiaran. Gaztiñaundi basoan*

Udazkenean *Tolosako* abesbatzen lehiaketako pregoia egin beharreen omen da "esantzeat nik ze esan bear diean; gaiñeara, nik gai oi eztiat ezautzen, amorrazioa ematentzik, baiño jun eiñ bearko iat; ba ze esango zeat: Euskalerrin daukeula munduko musika-tresnaik zaarrena; Isturitzen, 25.000 urteko txilibittue, egazti aten ezurrekin eindakoa, be txulo ta guzti. Geo 4.000 urteko adarra ere bazeukeau. Txikittako txilibittuk nola eitten giñuztean gaztiña-zepa eo lizarrakiñ-da..".

Etixeratu ginenerako, eguzkia makalduxea zen eta sukaldearen epelean murgildurik, arratsaldeko pasadizoak gogoratuz jardun dugu, mendi-irtenaldi hura *Gaztiñaundi* azken agurra egindakoa izan zela ohartu barik.

**Jexux AIZPURUA BARANDIARAN**